



ITUNA BETETZEA BERMATZEKO PROPOSAMENA

Ituna betetzearen blokeoa gainditzeko aukeraren aurrean, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen eskola-orduen murrizketari buruz, STEE-EILAS sindikatuak hurrengo proposamena egin nahi du:

1. Irakaskuntza zuzeneko saioen murrizketa 23 saioetatik 22ra.
2. Irakasleen lanaldi eta ordutegiaren Foru Dekretua gaurkotzea eta araudi bateratzea.
Irizpideak:
 - Ikasturte osoan zehar ordutegian eskola-ordu kopuru berbera izatea defendatzen dugu.
 - Irakasleen asteko ordutegia 25 eskola-ordu eta 5 osagarri izango da.
 - Orduen eta saioen gaia argitu behar da.
 - Lan saioak iraupen bera izateko, 25 eskola-ordu 50 minutuko 30 saio izango dira.
 - Irakasleen eskola-orduak izango dira irakaskuntza zuzeneko irakaslaneko orduak eta irakaskuntza konputukoak. Oro har 22 eta 8 saio.
 - Iraila eta ekaina hilabeteetan lanaldi jarraitua mantenduko da.
 - Ikastetxeek, bere autonomiaren arabera eta Eskola Kontseiluaren onarpena izan ondoren, bere beharretara hobekien egokitzen den ordutegia aukeratuko dute ondorengo aukeren artean:
 - a) Irailean eta ekainean: 45 minutuko 24 saio (zuzeneko irakaslan) 45 minutuko 6 saio + 50 minutuko 3 (irakaskuntza konputukoak).
 - b) Urritik maiatzera: 22 saio (zuzeneko irakaslan) 8 saio (irakaskuntza konputukoak).
Ikasleentzako zuzeneko irakaslaneko ordutegiak 27 saio (21 goizez eta 6 arratsalde). Honek esan nahi du asteen bi arratsalde libratzea eta goizetan oraingoei bat gehitzea, hauetako bat aukeratzeko:
 - Egunero 10 minutu luzatu goizeko ordutegia, jardunaldiaren hasiera gisa lan taldeko tutoretza egiteko.
 - Ordutegia 25 minutu luzatu libratzen diren bi arratsaldetako goizetan, ikastetxeak proposatutako ekimenak egiteko.
 - 50 minutuko saio batekin ordutegia luzatu, arratsaldea libratzen den goiz batekoa.
 - c) Gaur egun indarrean dagoen ordutegia mantendu.
 - Lanaldi jarraituaren aipamena agertu behar du aukera gisa ikastetxeek araudiaren eta dagokion deialdiaren arabera (aldatzeko dena) izan dezaten
3. 5 zuzeneko irakaslaneko saioko ordutegian murrizketa, 58 urte goitikoan irakasleentzat.